



**LABORALEN FUNZIONARIZAZIOARI BURUZKO
AUZITEGI KONSTITUZIONALAREN EPAIA DELA ETA**

Otsailaren 15ean argitaratu da Euskal Funtzio Publikoaren Legearen atal bat indargabetzen duen Auzitegi Konstituzionalaren epai bat. Prentsan agertutako berrien arabera, epai honek indargabetzen du 1997tik aurrera titulaziorik gabe funtzionarizatu ziren hainbat langile laboralen izendapena (horien artean publifikatutako ikastolen langileena).

Honen aurrean LABek ondokoa argitu nahi du:

- 1997an Euskal Funtzio Publikoaren Legean aldaketa bat eman zen: “... se podrán funcionarizar mediante unas prueba restringidas y sin tener la titulación requerida (exceso de titulación) ...”
- Langile hauek ezin izan zuten funtzionario bihurtu 94ko oposaketetan gehiegizko titulazioa zutelako (Lehen Hezkuntzan lanean zeuden lizentziatuak baitziren)
- Legearen aldaketak ezartzen zuen aukera ez zen inoiz gauzatu Aznar eta hainbat senatari sozialistek helegitea jarri eta aplikazioa geratu zelako.
- Gehiegizko titulazioa zuten langile horiek aurreko egoera berean jarraitzen dute gaur egun (laboralak izaten jarraitzen dute)

Ondorioz, 97ko lege aldaketa horrek ez da inoiz gauzatu eta aipatutako epaiak ez du inolako eraginik orain arte funtzionarizatu diren langileengan.

LABek langile hauen egoera laborala eta beraien eskubide guztiak bermatzea exijitzen du. Era berean, Lan Harremanetarako Euskal Esparruaren aldeko aldarrikapena berresten du, eta ez die zilegitasunik ematen euskal esparrutik kanpo datozen ezarpenei.

<http://www.labsindikaturia.org/sektoarak/irakaskuntza/publika>

Araban
Bueno Monreal, 10 Behea
01001 Gasteiz
Telf.: 945 259 544
Faxa.: 945 258 039
Irakaskuntzaaraba@
labsindikaturia.org

Bizkaian
Rekalde zumarkalea,62
48010 Bilbo
Telf.: 944 706 900
Faxa.: 944 706 909
Irakaskuntzabizkaia@
absindikaturia.org

Gipuzkoan
San Bladi 1, behea
20013 Donostia
Telf.: 943 458 562
Faxa.: 943 456 645
Irakaskuntzagipuzkoa@
labsindikaturia.org

Nafarroan
M.Zelaieta 75, 2.A
31014 Iruñea
Telf.: 948 382 474
Faxa.: 948 221 276
Irakaskuntzanafarroa@
labsindikaturia.org

Iparaldean
13 Marengo Karrika
64100 Baiona
Telf.: 0559595020
Faxa.: 0559595021
baiona@
labsindikaturia.org